

XXII. TITERE JAIALDIA IRAGARTZEKO XII. KARTEL LEHIAKETAREN OINARRIAK. BARAÑAIN 2016

1. Kartelek aipatu beharko dute zein den iragartzen den ekitaldia, hau da, Barañaingo Titere Jaialdia.
2. 16 urtetik gorako edonork parte hartzen ahalko du eta, gehienez, 3 lan aurkezten ahalko ditu. Lanek orijinalak izan behar dute.
3. Kartelak aurkezteko epea luzaezina izanen da eta bukatuko da **2016ko martxoaren 11ko 14:00etan**.
4. Lehiakideek Barañaingo Udalaren Kultura Etxean aurkeztu beharko dituzte beren lanak. Fakturazio bidez edo postaz igortzen ahalko dituzte, bai eta eskuz aurkeztu ere. Behin lehiaketa bukatuta, Udala ez da arduratuko lanak kaltetu edo galdu badira, ezta haiek itzultzeaz ere.
5. Barañaingo Udalak beretzat hartu du Jaialdiak iraun bitartean lehiaketan parte hartu duten kartel guztiakin edo batzuekin erakusketa publiko bat antolatzeko eskubidea. Erakusketa leku publiko zein pribatuetan izanen da.
6. Behin lehiaketa bukatuta, lehiakideek hilabetea izanen dute kartelak jasotzeko, kartel saridunak izan ezik, halakorik balego. Izan ere, lan saridunak udalaren jabetzara pasako dira. Ondorioz, ulertuko da egileek haiei uko egin dietela eta erreklamaziorako nahiz kalte-ordainerako eskubide guztiak galduko dituzte. Lehiakideek kartelak igorri eta itzultzeko gastuak ordainduko dituzte.
7. Kartelak egilearen sinadurarik gabe aurkeztuko dira eta bakoitzak aukeratzen duen lelopean. Egileek leloa atzealdean jarriko dute, bai eta gutun-azal itxi baten kanpoaldean ere, eta, aldiz, barnean egilearen datuak (izen-abizenak, herria, helbidea, telefonoa, helbide elektronikoa) eta NANren fotokopia ere bai.
8. Kartela egiteko teknika librea da, baina kartelaren tamaina izango da: gutxienez, DINA3, eta, gehienez, 70 cm-ko altuera eta 50 cm-ko zabalera. Euskarri gogorrean jarrita aurkeztu behar dira, ahal izanez gero, 5 milimetroko kartoï luman. Lanetan testu hau jaso beharko da:

XXII FESTIVAL DE TÍTERES. BARAÑAIN 2016. Del 6 al 8 de mayo.

XXII. TITERE JAIALDIA. BARAÑAIN 2016. Maiatzaren 6tik 8ra.

9. Barañaingo Udaleko Gobernu Batzordeak izendatuko du lehiaketa honetako epaimahaia. Barañaingo Udaleko zinegotzi batzuk izanen dira epaimahaikide, bai eta titereen munduari lotutako hainbat pertsona ere. Epaimahaikideek eta familiakoek ezin izanen dute lehiaketan parte hartu.
10. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izanen da eta ohiko hedabideen bitartez emanen da aditzera. Epaimahaiak eman gabe uzten ahal du saria.
11. Sari bakarra izanen da **500 euro**.
12. Barañaingo Udalak une oro eskubidea izanen du kartel sarituen nahi adina kopia litografiko egiteko, edo beste edozein modutan, nahi bezala erabiltzeko, eta egileek ezin izanen dute inolako erreklamaziorik egin.
13. Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, jakitera ematen zaizu ematen dizkiguzun datu pertsonalak Barañaingo Udalaren ardurapeko fitxategian jasoko direla: lehiaketa honetan zure parte-hartzearen kudeaketarako eta aipatu entitateak etorkizunean antolatzen dituen lehiaketei buruzko informazioa helarazteko baino ez dira erabiliko. Azken xederako baimenik ez badiguzu ematen, hilabeteke epean jakinarazi, arren, Barañaingo Udalari bat ez etortze hori. Gauzatzen ahalko duzu datu horiek eskuratu, aldatu, baliogabetu eta horien kontra egiteko eskubidea. Horretarako, jakinarazpen bat igorri ondoko helbidera: Barañaingo Udalaren Kultura Etxea - Nafarroako Komunitatea kalea, 2 - 31010 Barañain (Nafarroa).
14. Lehiakideek oinarri guztiak onartu beharko dituzte, lehiakide direnez gero.
15. Nafarroako Udal Administrazioarako Erregelamenduaren xedapenek arautuko dute lehiaketa hau.

